

ARRASATE MUSIKAL: ZERGATIK EZ DU EUSKO JAURLARITZAK FINANTZIAZIO DUINA ESKAINTZEN ARRASATE MUSIKALENTZAT?

2013an Arrasateko Udaleko Bozeramale Batzordeak aho batez eskatu zion Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura sailari musika eskolentzat %33ko finantzaketa egonkorra lortzeko asmotan, Eusko Legebiltzarrak aho batez 2013ko otsailaren 28an onartutako transakzio-zuzenketa betetzea eta ekintza plana ezartzea eskatzen.

Zergatik eskatu zen hau? Europan, herrietako musika eskolen finantzaketa eredugarritzat ondorengo eredia aipatzen delako: 1/3 udalek ematea, 1/3 gobernuak (gure kasuan Jaurlaritzak) eta 1/3 erabiltzaileek. Aspaldian, erabiltzaileak dira dagokiena baino diru gehiago ari direnak ordaintzen kuota bidez eta Udala gutxi gora behera 1/3aren bueltan mantendu da. Gaur egun, %35a ematen du zuzenean Udalak diru laguntza moduan, aintzat hartu gabe Arrasate Musikali beste hainbat laguntza eskaintzen diola urtean zehar edota diru galerak egon izan direnean beti egon izan dela babesteko.

Guk Eusko Legebiltzarrean egin dugun galderaren bidez Jaurlaritzari galdetu nahi diogu zergatik ez duen betetzen legebiltzarrak berak 2006an onarturiko hau: 2006ko urriaren 11n Eusko Legebiltzarreko Hezkuntza eta Kultura batzordeak aho batez ez-legezkoa zen proposamena onartu zuen eta bertan proposatzen zen besteak beste eta hitzez hitz *“Eusko Legebiltzarrak hezkuntza unibertsitate eta ikerketa sailari, Europako eredu egokia bezala ezarrita dagoen %33ko finantzaketa bost urteko epean lortzeko asmotan, musika eskolen diru-laguntzetarako (hauen finantzaketan toki-administrazioek parte hartzen dute) aurrekontu zuzkidura, mailaz maila, urte anitzeko plan batean handiagotzea eskatzen dio”*.

Egun Eusko Jaurlaritzak Arrasate Musikalen %21a soilik finantziaztea ez zaigu bidezkoa iruditzen. Musikarako sarbidea unibertsala izan beharko litzateke arrasatearrentzat eta dirua ez litzateke izan behar inorentzako oztopo. Egun erabiltzaileak dagokiena baino gehiago ari dira ordaintzen eta horrek kalte ekonomikoa egiten die familia eta musika ikasi nahi duten norbanakoei. Arrasateko EH BILDUren helburua da ahalik eta jende gehienak izatea sarbidea hezkuntza musikalerara eta horretarako, lehen pausoa, Arrasate Musikalentzat finantziario duin eta egonkorra da. Horregatik sartu dugu galdera Eusko Legebiltzarrean, arrasatearren eskubideak eta interesak defendatzea dagokigulako beharrezkoa den leku guztietan.